

noaua

**Igande honetan,
"lip dub herrikoia"**

**Aginagako festak,
iruditan**

**Lau urte bete ditu
Usurbilgo
Gaztetxeak**



Larunbat honetan,

Herri Anitza festa

ETXEBIZITZA ENKANTEAN



Eskera egiteko
azken eguna:
ABENDUAK 20

Lizitazioko gutxienezko prezioa:
106.323'45 euro

Lizitazioko gehienezko prezioa:
132.823'45 euro

Informazio gehiagorako: **943371951**
edo **kontratazioa@usurbil.eus**



FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

HILERRIKO LANAK:

- GORPUZKI ETA HILOTZ-ONDARREN LEKUALDAKETA
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA
EDO EDOZEIN HILERRITIK
- IZAPIDE GUZTIETAZ ARDURATZEN GARA (OSASUN SAILA, UDALA...)
OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA
(ERREGISTRO ZB: F18)

- GORPUZKI ETA HILOTZ-ONDARREN ERRAUSKETA
- GORPUZKI ETA HILOTZ-ONDARREN BATERAKETA, LAPIDAK

943 36 21 63 (24H)

AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



- BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
- EDOZEIN ASEGURU IZANDA (**OCASO, SANTALUCIA...**) HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. DENETAZ ARDURATZEN GARA
- Asegururik EZ duten familientzat **Usurbilgo beilatokia DOAN** (gure eskutik)

LASER DIODO IRAUNKORRA

LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra
lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:
(prezioak sesio bakoitzeko)

EMAKUMEETAN:

- Hanka osoak+ oinbularrak+ behatzak 149€ /
Hanka erdiak+oinbularrak+behatzak 99€
- Izter erdiak 99€ Besoak + hatzak 79€ / Besurreak + hatzak 69€
- Kokotsa + ezpaina 39€ / Besapeak 39€
- Besapeak + Ingleak (bikini) 79€ / Besapeak + Ingleak (brasildarrak)
89€ Besapeak + Ingleak (osoa) 99€

GIZONETAN:

- Besapeak 39€ / Ingleak 49€ / Begitarteak 19€
- Sorbalda + besaburuak 129€
- Sabelaldea + toraxa 153€
- Hanka osoak 194€ / Hanka erdiak 122€
- Besoak 99€ / Besurreak 89€
- Ipurmasailak 79€



Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

Albiste iruditan

1936an jaiotakoak omendu dituzte

Garai zail askoan etorri ziren mundu honetara, 1936an, eta 80 urte bete berri dituzte. Goraipatzekoa dudarik gabe. Oroigarri eta erloju bana oparituz, urriaren 2an Atxega jauregian ospaturiko senide eta lagun artean omendu zituen Gure Pakea Elkartek, zortzi hamarkada bete dituzten herritarrak. Ospakizunen artean ondoko argazkia ateratzeko tartea hartu zuten. Honako hauek dira aurtengo omenduak, guztiak ez baina gehienak bai, Gure Pakea Elkartek helarazi digun argazkian ageri dira: Pilar Garmendia, Joxe Zubiria, Miren Alkain, Nieves Aranburu, Maria Angeles Pagola, Maria Zapirain, Julian Illarramendi, Rosario Lasa, Ignacio Aizpurua, Lutxi Lopetegui, Mari Kruz Agirre, Francisco Segurrola, Manuel Diaz, Alfredo Ruiz, Adolfo Castro, Israel Gomez, Miguel Garcia, Magdalena Gaitero eta Maria del Carmen Villanueva. Zorionak!



Urriaren 2an, Atxega jauregian batu ziren.

Laburrean

1955. urtean jaiotakoan afaria, urriaren 15ean

Urriaren 15erako antolatu dute. Otordurako izen emateko idatzi, 1955usurbil@gmail.com helbidera, edo 615 760 458 (Paxi) telefono zenbakira deitu.

Urriaren 30ean, 1946an jaiotakoan bazkaria

Izena aurrez eman beharko da Laurok libururako dendan, urriaren 23a baino lehen. Honatx Laurokeko telefono zenbakia: 943 36 34 48.

Berdintasun plan berria lantzeko bilera

Bigarren bilera deitu dute Udalak eta Elhuyar Aholkularitzak. Ostegun honetan, urriak 13, 18:00etan Potxoenean. Bilera irekia izango da.

noaia

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaia.eu // www.noaia.eu

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda, publizitatea@noaia.eu

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.eu:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

Erantzuteko ordua

Ez digute galdetu nahi, ez dute gure erantzunik nahi, ez gaituzte entzun nahi, kezkatzen, arduratzen gaituzten gaien inguruan. Galdetzen badigute, benetan pitzatzen hasiko baita eraikia duten sistema antidemokratikoa. Galdetzea desesoa suertatzen baita, jasoko duzun erantzuna gus-tuko izan ez edo zure interesen aurka joango dela baldin badakizu. Horrelakoetan hobe isilik ezta? Aurrean galdezka duzunari kasurik egin ez, edo bestaldera begiratu, edo bakea uzten ez bazaitu isilarazi. Hortxe egunerokoan aplikatzen diguten errezeta.

Araudia ere horretara moldatua, bihurritua dute. Herriarrian teilatupean behar

lukeen erabakitzeko eskubidea, ez dute ondorio guztiekin gure esku utzi nahi. Haien atzaparretan bahitua segitzea nahia-go dute. Gu, boterean bat jarri edo bestea kentzeko lau urtean behin bozkatzera joan eta kito. Beste lau urtez isilik nahi gaituzte.

Oraindik orain ulergaitza da, udalerrri baten interesekoa eta kezka iturri den gai baten inguruan herriak eskatutako galdeketa bat antolatzekeo baime-na Madrili eskatu behar izatea udaletxe batek. Herritarrengandik gertuen dagoen erakundeak nolatan ez duen eskumenik, eskubiderik, udalerriri berari zuzenean eragiten dion gai baten aurrean galdetzeko.

Eta gertatu da, beste behin. Euskal Herrian, Usurbilen. Uda-

lak herritik jasotako eskaera bati bide eman eta Madrili baimena eskatu beharrean aurkitzen da oraindik orain 2016. urtean. Eta beste behin, ezezkoa izan da Gipuzkoatik abiatu, Madrilen geldialdia egin eta handik Usurbila bueltan etorri den erantzuna. Erraustegiaz iritzia emateko baimenaz nabil noski.

Eta debeku honen aurrean, txalotzekoa, zoriontzekoa, Erraustegia Erabakia herri plataformak galdeketa antolatzekeo hartu duen ardura galanta. Horregatik, ezin dugu alferrik galdu aukera hau. Erraustegiaz pentsatzen duguna adierazteko aukera. Aprobetxatu beharrekoa, ezinbesteko garrantzia duena. Are gehiago, gure osasun eta ingurumenerako,

baita poltsikorako ere ekar ditzakeen kalteez hainbestetan ohartarazi gaituzten honetan.

Izan dadila Gure Esku Dago mugimendua egiten ari den moduan, galdeketen kultura sustatzeko beste aurrerapauso handi bat. Urrun baikaude oraindik, beste hainbat herrialdeetan ohikoa den galdeketak antolatzekeo ohitura horretatik.

Isilik nahi gaituzte, baina oraingoan entzun behar dute herri honen ahotsa. Urriaren 21etik 23ra, hitzordua dugu hautesontziekin. Zenbat eta bozka gehiago, orduan eta ozenago entzungo da usurbildar eta zubietarren ahotsa. Hitza har dezagun beraz, entzun gaitzaten. Erantzuteko ordua heldu da.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Ilazki Gaintza | Maialen Unanue | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai

Ika-Mika

Usurbilgo jubilatuta eta herritarroi

Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek Zubietan erraustegia berpizteko hartu duten erabakiaren aurka gaudela adierazteko, Usurbilgo jubilatuta, otsailaren 19an Mikel Laboa plazan egin genuen mobilizazioaren argazkian (NOAUA! 648. zenbakia) garbi azaltzen da jubilatuta mordoia bildu girela.

Azken zazpi hilabete hauetan erraustegiaren aurka jende asko agertu da (Donostian, Andoainen...) mobilizazioetara. Erraustegiak sortzen duen kutsadurak umeen osasunean

eragin dezakeen kalteaz oharturik, "guk ez dugu interes politiko edo ekonomikorik. Bakar-bakarrik gure seme-alabak babestu nahi ditugu" aldarrikatu eta moratoria bat eskatuz plazaratu da GuraSOS elkarteak. Erraustegia eraikitzekeo baimenari 4.000 errekurtsio (1.038 Usurbilen) jarri dira. OEIT mediku taldeak munduan zehar (Italia, Frantzia, Espainia, Amerikako Estatu Batuak...) egindako ikerketa zientifikoen berri ematen du herri ezberdinetako hitzaldietan (berriki Usurbilen izan dira). Erraustegiaren aurkako

sinadura mordoia biltzen da, eta abar luze bat.

Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek berriz, eskaera eta mobilizazio guztiei (zakar ontzira botako balitu bezala) jaramonik egin gabe jarraitzen dute Zubietako erraustegia eraikitzekeo asmoarekin pausoak emanez.

Agintarien jokabide (prepotentzia esatea gehiegi ote?) ezkor honetan, urriaren 16an eguerdiko 11:00etan "Lip Dub" grabazioa antolatu da Usurbilgo kaxkoan eta bertan umoretsu partehartzeko deia egiten zaizue jubilatuta eta herritarroi.

Era berean, urriaren 21-22-23 egunetan egingo den herri galdeketa botazioan ere parte hartu eta zuen haserrea azalduz, otsailaren 19an irakurri genuen idatziaren bukaeran esaten genuenarekin, "burua duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du beste inoren herrian nahi, alternatibak baditugulako, osasuntsuagoak, jasangarriagoak eta merkeagoak" esaldiarekin gero arte lagunok.

Erraustegirik ez, ez Zubietan eta ez inon!!

Orkatz*

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 21. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 17.

Hitz Ahok doluari buruzko hitzaldia antolatu du

Dolua; Heriotzean ere haurrak partaide. Heriotzaren pedagogia eraiki behar dugu solasaldia antolatu du Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak, urriaren 21erako, 18:00etan Potxoenean. Patxi Izagirre psikologoak, doluan adituak bideratuko du.

“Heriotza, galera. Zirrara sortzen duten kontzeptuak dira. Bizitza naturaltasun osoz bizitzen badugu ere, heriotza, bizitzaren azkena, tabua da gure eguneroko elkarriketetan, eta txikienek ere entzun egiten dituzte. Helduok, gorrak eta itsuak balira bezala jokatzen dugu haiekin. Heriotza bizitzako zati gisa integratzeko, hezkuntza gune arras ga-



“Heriotza bizitzako zati gisa integratzeko, hezkuntza gune garrantzitsua da”.

rrantzitsua dela azpimarratu nahi genuke. Gai horiei tabu trataera emateak zaildu egiten ditu haien inguruko eztabaida eta hausnarketak. Nola egin dezakegu planteamendu naturalagoa?”.

Urriak 21 ostirala

- Potxoenean.
- 18:00etan.
- Hizlaria: Patxi Izagirre.
- Doako saioa.
- Antolatzailea: Hitz Aho.

“Zure enpresa nola sortu eta kudeatu”, doako ikastaroa

Hernanin antolatu dute ikastaro hau eskualdeko langabetuentzat. Azaroaren 15 eta 16an izango da, Hernaniko Gabriel Zelaia eraikinean. Orduetgia aukeran izango da interesdunentzat; goizez, 09:00-13:00 artean edo arratsalde, 15:00-19:00 artean. Doako ikastaroa izango da.

Izena emateko:

- 943 304 221 (Nerea Yurrebaso)
- ekinean@andoain.eus
- Lanbideko eskualdeko bulegoan.



Hernaniko Gabriel Zelaia Eraikinean egingo da ikastaroa.

Ika-Mika

Herriko kultur sortzaileei (eta interesatuei)

Normalean horrelako ideiak han edota edanaren bueltan aipatzen dira, eta gero, ajeak edota betekadak beraiekin ematen ditu. Baina pena merezi duela iritzita, publiko zabalari zuzentzera ausartzen naiz. Kontua zera da: Usurbilen kultur sortzaileen potentziala oso handia dela pentsatzen dut, edozein delarik ere arloa: musikariak, antzezleak, argaz-

kilariak, margolariak, marrazkilariak, idazleak, artisauak, eskulturgileak, koreografoak... Seguru bateren bat ahaztu dudala; barka diezadala.

Baina iruditzen zait, eta beharbada nire irudipena da eta oker nabil, elkarren arteko harremana oso mugatua dela, zirkulu hurbiletara mugatzen dela. Lehen aipatutako potentzial indibidualak, ordea, gauza berri eta interesgarriak sor-

ditzekeelakoan nago elkarren arteko harremana egin eta estutuz gero. Kilometroetako aurkezpen ekitaldia horren lekuko dugu. Baina dena ez da gauza erraldoiak eta espektakularrak egitea, gauza txikiak ere handiek bezain besteko indarra izan dezakete.

Beraz, idatzi xume honekin herriko kultur sortzaileei zuzendu nahi natzaie gure arteko harremanak egin eta

oraindik gehiago estutzeko asmoarekin. Eta ea behingoz, egingo-di(n)agu-tik harago joaten garen eta herri honi sortzeko eta egiteko gai garen guztia (edo ia guztia) erakusten diogun. Interesatuta egon daitekeenari, kalean ikusi eta elkartuko gara eta pixkanaka joango gara proiektu honi itxura eta forma ematen.

Ugaitz Agirre

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ARTZABAL
BASERRIA • JATETXEA
EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK • TOSTAK
MENU BEREZIAK
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus

Ilusioz ospatu dute Gaztetxearen laugarren urtemuga

Alkartasuna Kooperati- baren egoitza ohiaren okupazioa atzo gauzatu zela dirudi, baina denbora igaro da ordutik. Lau urte bete dituen Usurbilgo Gaztetxekoekin bildu gara eta aipatu digutenez, oroitzapenetan ondo iltzatua dute une hura. Gogoan dute, “herrian zehar egin genuen kalejira eta nola okupatu genuen. Jendetza izan zen hemen. Lehen egun haietan eginitako asanbladak sinestezinak ziren, Usurbil bezalako herri baterako. 80 pertsona biltzera heldu ginen. Herriko gazte piloa hemen garbitzen, gogoz... Oroitzapen ona”.

Lau urteok hegan joan direla diote. “Lau urte pasa dira eta oraindik hemen gaude. Okupatu genuenean esan ziguten, hiru hilabete pasata botako zutela. Eraitsi artean hemen segiko genuela erabaki genuen. 4 urte igaro dira ordutik eta hemen jarraitzen dugu”, azaldu diote NOAUA!ri.

IBILBIDE EMANKORRA

2012ko abuztuaz geroztik, ekimen mordoa antolatu izan dute. Emankorra izan da Usurbilgo Gaztetxearen ibilbidea. “Ekintza guztien batuketa bat



Irailaren 23an laugarren urtemugako kontzertu gaua antolatu zuten, Joseba Tapia eta Besamotzak, Rukula eta Zozo taldeekin. Argazkia: Ibai Arrieta.

EKITALDI UGARI

“Kontzertu piloa, haur ekintzak, Usurbiltzenen otarrak ere hemen banatu izan dira, hileroko afari beganoa, dantza afrikarrak, tailerrak, Kalefit...”

egin nahi dugu”, zerrenda luzea baita. “Kontzertu piloa, haur ekintzak, Usurbiltzenen otarrak ere hemen banatu izan dira, hileroko afari beganoa, dantza afrikarrak, tailer mordoa, Kalefit taldekoak ere hemen ibiltzen dira. Goian patinetekoak daude. Jaietako maskotak ere egin izan dira he-

men. Gure Esku Dagoko afari jendetsu bat egin zen”, oroitzen dute laugarren urtemuga honetan.

Bestelako eskaintza

Arrastoa utzi duten ekimenak izan dira. “Bisitan etorri zaizkigun artistak, hitzaldiak eta ikastaroak eskaini izan dituztenak, beste jende bat ezagutzeak emandako aberastasuna. Hori ere positiboa izan da. Elikadura aldetik ere zenbaitek ezagunak ez genituen zenbait elikadura eredu ezagutu ditugu. Musikalki ohiko irratietan entzuten ez ditugun hainbat talde eta jende ezagutu dugu”, adierazi dute Usurbilgo Gaztetxeo kideek.

Aire berri bat

Bestelako eskaintza baten aldeko apustua egiten segitzen dute, espazio ireki eta alternatiboan. Irailaren 23an laugarren urtemugako kontzertu gaua antolatu zuten, Joseba Tapia eta Besamotzak, Rukula eta Zozo taldeekin. Ekimen gehiago ere antolatzekotan dira Gaztetxeoak. Esaterako, “erosten aritu beharrean, kitarren pedalen tailerra egin nahi da. Etxean bertan, pedalak egiteko. Ez da hain konplexua”. Masaje tailerra edota film proiektzio bat ere iragarri dituzte. Honez gain, “beste aire bat” eman nahi diote espazioari. Egunotan gunea txukundu eta margotzen ari ziren. Taberna gune bat egokitzekoak dira.

Eraikinaren

eraistea, gertuago

Gunea okupatu zenetik jakitun ziren etxebizitza promozio baten kokagunean zirela. Hilabete batzuen buruan eraitsi behar zuten Gaztetxea. Baina 4 urte igaro dira eta Alkartasuna Kooperati baren egoitza ohiaren segitzen dute. Etorkizun hurbilak ordea, aldaketak ekar ditzake. Badi-rudi, gerturatzen doala Gaztetxeo eta inguruko eraikinak eraisteko eguna, Gaztetxeo-koentzat, “guretzat sozialak ez diren etxebizitzak” eraikitzen hastekoa. Okupazio egunetik argi dute halere, gunea bera baino garrantzitsuagoa dela egitasmoa. “Eraikina edozein izanda ere garrantzitsuagoa ikusten dugu asanblada bat mantendu eta gauzak egiteko gogo hori egotea. Horri hel-tzen diogu. Ez gaude eraikin honi lotuak”.

Ideiak gauzatzeko gunea

Biltzeko egun finkorik ez dute. Baina haiekin hartuemanetan jartzeko Facebook bidez jar zaitezketen harremanetan.

Jende kopuru aldetik urteotan beherakada egon dela ikusten dute. “Saiakera piloa egin dira jendea erakartzeko baina ez da lortu. Paretak sortzen dira, belaunaldi eta koadrilen

artean eta oso zaila da hori aldatzen”, diote. Dagoen taldeak ordea ilusioa galdu ez eta aurrera segitzeko asmoa du. “Gazteek leku bat izan eta haien ideiak eta asmoak garatzeko ilusioa ez da galdu. Positiboa da, espazio honetan ideia bat izatetik bukaeraraino eramanezakezula ikustea, ahaldun sentitzea”.

Ostegunean, afari beganoa

Animalietatik eratorriak ez dauden jakiekin prestaturiko afari beganoa antolatzen hasi da berriz Gaztetxea. Uda osteko lehen hitzordua, ostegun honetan, urriak 13, 20:30ean Gaztetxean bertan. Eta boron-datearen truke.

Sasoian mantendu edota osasun arazoei aurre egiteko ibilaldiak

A dineko pertsoneri eta dibertsitate funtzionala duten herritarrei zuzendua egongo da, nahiz edonork parte hartu ahalko duen, Usurbilgo Udalak hainbat eragilerekin elkarlanean antolatu duen "Goazen Kale-ra" egitasmoa. "Ekimen horren bitartez, herritik zehar joango diren ibilbide ezberdinak planteatuko dira, ohitura osasuntsuak bultzatuz", Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.



Urriaren 19tik aurrera, asteazkenero abiatuko dira goizeko 11:00etan Artzabaldik.

Astean behin izango dira ibilaldiok. Urriaren 19an hasita, asteazkenero goizeko 11:00etan abiatuko dira Artzabaldetik. Eguraldi txarra eginez gero, Artzabalen geratuko dira

parte hartzaileak, gorputza eta osasuna zaintzeko ariketak egiteko.

Ibiltzera irteteko moduko giroa bada, "herrigunetik lau ibilbide zehaztu dituzte anto-

latzaileek, eta astero bat egingo dute. Horrez gain, asteazkenero ibilbideak egiten dituzten heinean, zigilu batekin parte-hartzaileen txartel propioak markatuko dira, eta aldizka

'Hurbilago' merkatari eta ostalari elkartearen eskutik sorprestatxoak egongo dira".

Ibilaldiak

- Epea: urriaren 19tik 2017ko ekainera.
- Hitzordua: asteazkenero, goizeko 11:00etan Artzabalen.
- Oharra: eguraldi txarra eginez gero, gorputza eta osasuna zaintzeko ariketak Artzabalen.
- Antolatzaileak: Usurbilgo Udal, Hurbilago merkatari eta ostalarien elkarte, Eusko Jaurilaritza, Osakidetza, Gure Elkarte, Gure Pakea Elkarte, Arrate Elkarte, DYA, Udarregi Ikastola, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Odol Emaileen Elkarte.

Marmitako jana, eskertza moduan

Uztailean mendian zendu zen Tiburtzio Arruti bilatzeko lanetan aritu zirentzako deialdia segidan. Gogoan izango duzue, usurbildararen desagerketaren berri izan bezain laster, ekin zitzaizkien bilaketa lanei. Zereginotan parte hartu zuten besteak beste Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak, erreskate zerbitzuek eta hainbat bolondresak. Zorritzarrez, bere desagerketaren berri izan eta bi egunera hilik

aurkitu zuten Tiburtzio.

Eskertza ekitaldia

Eskertza moduan, bi hegaluze oparitu zizkion familiakoenez, Tiburtzioren Orioko arreba Nieves Arrutik Andatza M.K.T.-ri. Bi jakiokin marmitakoa egitea erabaki dute mendizaleen taldetik. Eta sukaldatutako jakia, bilaketa lanetan parte hartu zuten guztiekin partekatu nahi dute urriaren 21ean, ostirala,

iluntzeko 20:30ean Aitzaga Elkartearen antolatu duten afarian. Otordura, bilaketa lanetan parte hartu zuten lagun guztiak daude gonbidatuak. Antolatzaileek jada hainbat laguni jakinarazi diote deialdia. Baina jakinarazpena jaso ez duzuenok, izena aurrez eman beharko duzue, urriaren 19a baino lehen, Aitzaga tabernan jarria egongo den zerrendan. Edaria baino ez da ordaindu beharko.



Urriaren 21ean Tiburtzioren omenezko afaria egingo da Aitzagan.



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

USURBIL AUTOAK

· TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SÄLMENTA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

Euskalduntzeko ikasturte berria abian da



Urriaren 3an hasi zituzten klaseak Etumeta AEK Euskaltegian.

Euskalduntzeko ahaleginak ikasturte berria abiatu du Usurbilen. Urriaren 3an hasi zituzten klaseak Etumeta AEK euskaltegian. Hiru talde osatu dituzte oraingoan; goizez, EGA prestatzeko matrikulatu direnekin. Arratsaldean, B1 eta B2 mailako beste talde bana lanean da baita. Ondoko irudi honetan dituzue hain zuzen, azken bi talde hauetako kideak, irakasleekin batera.

Gurasoak euskalduntzeko apustua
Euskaltegiko eskaintzan izen emateko epeak zabalik segitzen du. Gogoan izan, euskalduntze saioetan, autoikaskuntzan eta Mintzalagun

IKASTARO BERRIA

“2-12 urte arteko haurren gurasoei zuzenduriko ikastaroa antolatuta dute, Udaregarekin elkarlanean eta Udalaren laguntzaz”

egitasmoan ere parte hartu dezakezuela. Aurten estreinakoz gainera, 2-12 urte arteko haurren gurasoei zuzenduriko ikastaroa antolatuta dute Etumeta AEK euskaltegiak Udaregi Ikastolarekin elkarlanean eta Usurbilgo Udalaren laguntzaz. Azaroaren 14an hasi eta maiatzera arte luzatuko da. 100 orduko iraupena izan-

go du. Astean bi orduko bina klase eskainiko dira, Udaregi Ikastolan, goiz edo arratsaldean. Ikastaroko prezioa 100 eurokoa izango da. Urriaren 28ra arte matrikulatu daiteke ikastaro honetarako. Udaregi Ikastolan edo euskaltegian bideratu ahalko da inskripzioa. Gero, izena eman duten gurasoei, azaroaren 3an mailaketa frogatzea egingo zaie Udaregi Ikastolan.

Etumeta AEK Euskaltegia

Izena eman edo informazio gehiagorako:
Nagusia, 43
607 609 379
usurbil@aek.eus
aek.eus
munterri.blogspot.com.es

18.890, KMK16-ren Gure Zozketan saritutako zenbakia

60.000 euroko saria zozketatu du urriaren 2an Bergaran Kilometroak jaialdia antolatu zuen Aranzadi Ikastolak. Jaialdiaren biharamunean eginiko zozketan, 1.548 izan zen zenbaki saritua. Ordezkoa, 18.890. Saria jasotzeko hilabeteko epea finkatu du antolakuntzak. “Zenbaki saritua epe horretan azaltzen ez bada, ordezkoak beste hilabeteko epea du saria jasotzeko”, ohartarazi dute. Antolatzaileekin harremanetan jartzeko, deitu Aranzadi Ikastolara. Honatx zenbakia: 943 76 90 71.

Berdintasun plan berria lantzeko bilera

Irailaren 21ean prozesua kokatu eta bigarren Berdintasun Planerako lehen erronkak planteatu ostean, lanketa honetan sakontzeko bigarren bilera deitu dute Usurbilgo Udalak eta Elhuyar Aholkularitzak ostegun honetarako, urriak 13, 18:00etan Potxoenean. Bilera irekia izango da, herritar nahiz eragileentzat.



Ostegun honetan, hilak 13, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05
Atallu nol. 28 USURBIL

ELORZA
OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Praktikatu eta Bizizi



Izan zaitez berbalagun, mintzalagun, mintzakide...
Zure euskara hobetzeko aukera paregabea.



praktikatu
mintzapraktika
egitasmoak **aek**

607 609 379
usurbil@aec.eus

ETUMETA AEK
Kale Nagusia, 45 behea
20170 USURBIL



Aginagako festak, iruditan





AZKEN PLAZAK!
garaiz zaude!

BIDAIA TALDEAN
Irteera Lasarte-Oriatik
abenduaren 3tik 8ra

Hegazkinak Bilbotik!

ISLANDIA
Aurora Borealak **1.940€**

MUNICH
Gabonetako merkatuak **839€**

KRUZEROA
Guadalquivir ibaian **891€**

Pertsona bakoitzeko prezioak. Tasak barne. Informazioa eta erreserbak bulegoan.

NOAUA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hopedrom Etorbidea, 15 - 20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 613 | info@noauidaiak.com
www.noauidaiak.com

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere noaua.eus web orrian



<http://www.noaua.eus>

Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean...
Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

MERKATU TXIKIA

noaua

EXPOSICIÓN
REFUGIADOS BIENVENIDOS

Ongi etorri

REFUGIADOS BIENVENIDOS

REFUXAOS AFAYAIIVOS

REFUXIADOS BENVIDOS

REFUGIATS BENVINGUTS

REFUGEEES WELCOME

RÉFUGIÉS BIENVENUE

اللاجئون مرح ببيباكم

RIFUGIATI BENVENUTI

REFUGIADOS BEM-VINDO

ПРИВЕТСТВОВАТЬ БЕЖЕНЦЕВ

WELKOMMEN FLYGTNINGE

FLÜCHTLINGE WILLKOMMEN

難民歡迎光臨

WELKOMMEN FLYKTNINGER

WILKOMMEN





Klik! batean

Ispiluaren isla

Ateak itxita. Maiz, hori izaten da guregana etortzen direnek topatu ohi duten egoera. Sutegiko kristalaren bestaldean, *Errefuxiatuak ongi etorri* irakurri daiteke egunotan. Ez dadila mezu huts bat izan. Abegikortasunaren isla baizik.

Argazkia: Ion Markel

Galdeketarako atzera kontua, azken txanpan



Herri galdeketaren gastuei aurreko egiteko lagundu nahi duenak eskura du kontu korronte zenbaki bat.

Badator, kezka eta hasereira eragin duen gai baten inguruan herritarrek hitza hartzeko ordua. Astebete baino ez da geratzen, Erraustegia Erabakia herri plataformak antolatutako herri galdeketa ospatzeko, herritarrok erraustegia nahi dugun edo ez erabakitzeko, eta gai honen inguruko iritzia ezagutzeko. Atzera kontua abian dela gogorarazten digu, Bordatxo aurreko errotondan eta beste zenbait tokian jarri

dituzten panelek. “Zure botoak garrantzia du!”, nabarmentzen dute herri plataformatik.

Laguntza premian

Erraustegiari buruzko herri galdeketa antolatzeak hainbat gastu eragingo ditu, eta biziki eskertzekoa izango da, herritarren diru-laguntza. Gastuei aurre egiteko laguntza biltzeko ekimen desberdinak abian ditu Erraustegia Erabakia herri plataformak. Batetik, kamise-

tak erosi ditzakezue 6 eurotan NOAUA! K.E.-ren egoitzan. Bestalde, diru ekarpenak egiteko kontu zenbakia ere zabalik du herri plataformak. Zenbaki honetan egin ditzakezue zuen diru ekarpenak:

ES 36- 3035 0140 37 1400030079.

Honez gain, galdeketa antolatzeke bolondresak behar dituzte. Prest daudenek idatzi dezatela email bat, erraustegiaerabakia@gmail.com helbidera.

Boluntarioak prestatzen

Herritarrek auzolanean antolatua izango da, Erraustegia Erabakia herri plataformatik astebete barrurako deitu duten erraustegiari buruzko herri galdeketa. Urriaren 21, 22 eta 23an Aginagan, Santuenean, Zubietan eta Kaxkoan egokituko diren hautesmahaietarako behar zuten bolondres taldea osatu dute jada antolatzailleek. Egin beharreko lanen argibideak jasotzeko, aurreko astean batzartu ziren Potxoenean.



Galdeketa arituko diren bolondresak Potxoenean elkartu ziren aurreko astean.

Herri galdeketa

■ Egunak: urriak 21 ostirala, urriak 22 larunbata eta urriak 23 igandea.

■ Galdetuko dena: “Erraustegia egitea nahi al duzu ala ez?”.

■ Erantzun posibleak: “Bai” eta “Ez” dioten bi bozka paper izango dira aukeran. “Gutun-azala hutsik badago edo paper zuria badu, bozka zurizat hartuko da. Eredu ofizialari egokitzen ez zaizkion bozka txartelak baliogabeak izango dira”.

■ Nortzuk parte hartu ahalko duten: Usurbilen eta Zubietan erroldaturiko 16 urtetik gorako herritarrek.

Galdeketa auzoka:

■ Urriak 21 ostirala:

16:00-20:00 Aginaga.

■ Urriak 22 larunbata:

9:00-14:00 Santuenea.

■ Urriak 22 larunbata:

16:00-20:00 Zubietan.

■ Urriak 23 igandea:

9:00-20:00 Kaxkoa.

■ Oharra: edozein mahaitan bozkatu ahalko da, norberari ondoen datorkion egun eta orduan.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

■ DNI-NAN, EHNA + Errolda agiria, pasaporte edo gida-baimena.

■ Espainiar estatuak herritartzat hartzen ez dituen pertsonen dokumentuotako bat erakutsi beharko dute: bizileku-txartela, jatorrizko estatuak jaulkitako nortasun agiria edo pasaporte, nortasun agiria/ziurtagiria, edo gidatzeko baimena.

-Kasu guztietan, aurkeztu beharreko dokumentazioan bizitokia Usurbil edo Zubietan dela agertu beharko da. “Hala ez bada, Udalaren erroldatze ziurtagiria (aurkeztutako identifikazio-agiria baino berriagoa eta 2016koa) eraman beharko da”.

Informazio gehiago:

erraustegiaerabakia.wordpress.com

Partehartze handiak lip dub-a edertuko luke

Herri eragileen babes zabala jasotzen ari da, urriaren 21etik 23ra egingo den erraustegiari buruzko herri galdeketa girtzeko, Erraustegia Erabakia Herri Plataformak igande honetan grabatuko duen lip-dub ekimena.

Jai batzordeak, guraso taldeak, kirol taldeak, dantzakoak, musikariak, irakasleak... Herri plataformako ki-deak eragile ezberdinen babes itzela lortzen ari dira, parte hartzaileen zerrenda hazten baitoa egunez egun. “Egunetik egunera eragile gero eta gehiago ari zaizkigu apuntatzen eta zaila egiten ari zaigu behin betiko zerrenda hori osatzea”, aditzera eman dute ohar bidez.

Eragileez gain, norbanakoek, nahi duen herritar orok parte hartu ahalko du grabazioan. “Urriak 16 eguerdian ez gelditu etxean! Hartu apaingarriren bat eta animatu erdigunera hurbildu eta lipdub koloretsu honetan parte hartzera!”, luzatu dute gonbita, Erraustegia Erabakia herri plataformatik.

11:00etan, Kaxkoan

Gogoan izan hitzordua: igandean goizeko 11:00etan gertu-



Goizeko 11:00etan kaxkoan elkartzeko deialdia egin dute antolatzaileek.

URRIAK 16 IGANDEA

“Askatasuna plazako bolatoki gainetik abiatuko da, Bordaxoko errotonda, Mikel Laboa plaza, udaletxea eta frontoia lotuko ditu gero”

ratu Kaxkora. Ondoko irudian duzuen mapan ageri zaizue, lip dub grabazioaren ibilbidea. Ibilbide horretan kokatu beharko da. Eta kamera parean tokatzen zaizuenean bururatzen zaizuen egin. Grabaziorako, Fermin Muguruzaren “Hartu dezagun hitza” abestia baliatuko da. Kanta ikasia ez duzuenok adi. “Aste honetan zehar, ibilbidean eragile bakoitzaren kokapena adieraziko duen bideo bat zabalduko dugu eta guztiok Fermin Muguruzaren “Hartu dezagun hitza” abestiarren letra ikasteko aukera izango dugu!”.

“Hitza hartzera goaz”

Igandean bertan entsegu saioak egingo dira lehenbizi, eta gero, grabazioa. Lip-Dub-a Askatasuna plazako bolatoki gainetik abiatuko da, Bordaxoko errotonda, Mikel Laboa plaza, udaletxea eta frontoia lotuko ditu gero. Pilotalekuan amaituko da. “Ziur gaude

erraustegiari buruzko herri galdeketa den ariketa demokratikoa burutzera goazen honetan ekimen honek indartu egingo gaituela. Usurbil eta Zubietako herritarrok hitz hartzera goaz!”, iragarri dute.

Atxikimendu zerrenda amaigabea

Erraustegia Erabakia Herri Plataformak; Pagazpe PKE; Usurbil K.E.; Atxegaldeko Jai Batzordea; Kalezarreko Jai Batzordea; Santueneko Jai Batzordea; Jubilatua; Orbeldi Dantza Taldea; Trikitilari eta panderoleak (+ Zumarte Musika Eskola); Sukaldariak; Usurbil F.T.; Kantu Taldea; Sagardoaren Lagunak; Tabernariak; Lauburu, Buruhandi eta Erraldioen Konpartsa; Andatza M.K.T.; Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak; Zubietako Herri Batzarra; Zubietako Jai Batzordea; Zubietako Lantzen, Erraustegiaren Aurkako Taldea; Zubietako Pilota Elkarteak; Zubietako Txirindulari Taldea; Matrakak Talde Feminista; Ernai; LAB; EH Bildu; Etxerat Elkarteak; Herriko musika taldeak; Usurbil BTT; Irakasleak; Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak.

Oharra: behin behineko zerrenda.

Larunbaterako mobilizazioa deitu dute Donostian

Herritarron osasunaren eta di-ruaren kontura aberastu nahi dutenak zuzenean salatzeko dinamika areagotzera doa Erraustegiaren Aurkako Mugimendua. Datozen asteotarako, “mobilizazio eta ekimenak biderkatuko ditugula jakinarazten dugu, beti ere gure dirua eta osasunaren kontura aberastu nahi duten multinazional, banketxe eta politikarien ardura salatuz”.

“Zuen negozioa, gure minbizia”

Ohar bidez iragarri dutenez, Erraustegiaren Aurkako Mu-



Larunbat honetan, eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Gipuzkoa Plazatik, Foru Aldundiko egoitza paretik, Banco Santanderreko egoitzaraino.

gimenduak finkatua du jada lehen hitzordua; urriaren 15ean larunbata, eguerdiko

12:00etan mobilizatzeko deia egin dute Donostian, Foru Aldundiko egoitza paretik Ban-

co Santanderreko egoitzara, “Zuen negozioa, gure minbizia” aldarripean. Ekimenean parte hartzera animatzen dute. “Erraustegiaren aurkako Mugimendua Gipuzkoako herritarrei kalera ateratzeko deia luzatzen die. Zeren eta oraintxe bertan, bulego ilunetan, eskrupulorik gabeko negozio-gizonak denon dirua eta osasunaren kontura aberastu nahian ari dira, Gipuzkoako agintari politikoen oniritzi lotsagabearekin”, salatu dute.

Espazio publikoa berrantolatzen hasiak

Espazio publikoa berrantolatzekeo prozesu parte hartzailea martxan da Usurbilen. Udalak jaso ditu “Kale Irekiak” egitasmorako hainbat ekarpen, azken egunotan, Aginagan, Zubietan eta Kaxkoan egin dituen lehen batzarretan.

Hurrengo saioen egutegia

■ Urriak 17-20, astelehenetik ostegunera

Haurren astea ikastolan eta herrian zehar: “Eman diezaiegun hitza umeei!”. “Herriko eskolarekin elkarlanean hainbat saio burutuko dira umeekin beraien Usurbil marraztu, oztopo eta beharrak identifikatu eta proposamenak jasotzeko”.

■ Urriak 19, asteazkena

18:30 Emakumeon topaketa



‘Kale Irekiak’ egitasmoko lehen bilerak Aginagan (argazkian), Zubietan eta Kaxkoan egin dira. Datozen asteetarako batzar gehiago iragarri dituzte.

Potxoenean: bideo emanaldia eta hausnarketa. “Ikuspegi propioa daukagu Usurbilen inguruan, eta ezinbestekoa da gure parte hartzea! Gazte, heldu zein adineko zatoz zure bizipenak kontatzera. Denon artean guztiontzako herri hobeto bat eraikiko dugu! Geure

beharrak ere kontuan hartzen dituen Usurbil, alegia”.

■ Urriak 22, larunbata

10:00 Batzarra Potxoenean: “Eguneroko bizimodua eta mugikortasuna”. “Saio honetan, herrian gehien erabiltzen ditugun espazioak identifikatu eta

aztertuko ditugu. Aproposak al dira ditugun beharretarako? Egokiak al dira umeak bakarrik egoteko? Adinekoak elkartzeko? Gauzez bertatik pasatzeko? Usurbilen erradiografia honekin herritarrok dauzkagun traba eta oztopoak identifikatu eta etorkizunean babestu eta indartu beharrekoak zeintzuk diren jakingo dugu”.

■ Urriak 26, asteazkena

18:30 Emakumeon topaketa Potxoenean: Ibilaldia herrian zehar.

■ Azaroak 2, asteazkena

18:30 Batzarra Potxoenean.

■ Otsailean...

Plan Zuzentzailea aurkeztu eta lehen saioaren finkatzea.

Antolatzailea: Usurbilgo Udalak.

HITZALDI-SOLASALDIA

Maialen Lujanbiorekin

noqua

Urriak 18, asteartea
Sutegin, 19:00tan

Bat-bateko bertsoa eta
sormen uneko mugak

Nola lotzen dira hirurak? Zeintzuk dira bertako aukerak/mugak/mekanismoak? Zein da bat-bateko bertsogintzan ematen den sormen prozesua? Beste adierazpenekiko berezitasunak zeintzuk dira?



Jardunaldi arrakastatsuak

Arrakastatsua izan zen Nafartarrak taldeak urriaren 1ean Sutegin antolaturiko “Independentziarako bideak” jardunaldia. 120 lagunek parte hartu zuten. Euskal prozesuaz eta katalanaz aritu ziren, hainbat aurpegi ezagun.

Pil-pilean den prozesu katalanaz lehenbizi. 2017an antolatu asmo duten independentziari buruzko galdeketa atarian dira. Prozesuak “ez du atzera bueltarik”, gai honi buruz hitz egiteko, Sutegira gonbidatu zuten aurpegi ezagun baten, ERC-ko buruzagi ohi Josep Lluís Carod-Roviraren esanetan. “Hilabete gutxi geratzen dira, ez dugu hutsik egingo eta irabaziko dugu, zuei ere desio dizuedan askatasuna”, zioen itxaropentsu eta baikor Carod-Rovirak, Sutegin bildu zirenei.

Urteotan jorratu duten independentziarantzko bidearen errepasso bat egin zuten. Hainbat datu argigarri eskaini zituen. Independentziari beldurra izatetik, beldurrarengandik independizatzera heldu direla, zapalketaren aurka manifesta-



120 lagunek hartu zuten parte Nafartarrak taldeak antolaturiko jardunaldietan.

tzetik independentziaren alde manifestatzera. Ezer egiterik ez dagoela eta “hoberena Espainiatik alde egitea dela” uste izatera. Katalana izatea kontzeptu inklusiboan bihurtu dela gaineratzen zuten. “Katalana izateko inork ez du bere nortasuna galdu behar”, sentimentu hori hedatu da hain anitza den Kataluniako jendartean. “Etxean, lantokian... edozein hizkuntzatan hitz egin da ere katalana da topagunea”, zioen Carod-Rovirak.

Jorratu nahi duten bide propio bat aurkitzeko ausardia izan dutela, kanpoko ereduak imitatu gabe. “Ez dago irtenbiderik kanpoan. Ez dago konponbide

katalanik euskaldunentzat. Ikasi daiteke, baina ez da irtenbidea”, zioen Carod-Rovirak.

Bere ustez, ezin da soilik historiatik eraiki herri independente bat. Nahiz ezinbestekoa den iragana. Baita oraina eta etorkizuna ere. Kultura, ongizatea eta demokrazia gosea, aintzakotzat hartu beharreko faktoreak dira bere ustez, Kataluniak bizi duen unea ulertzeko. Jorratu duten bidearen isla argia da, Parlamentean izan den iraultza. “25 urteren buruan, 3 parlamentariaren babesa eta 132 aurka izatetik, 72 parlamentariaren babesa izatera heldu gara. Ez dago batere gaizki”, zioen Carod-Rovirak.

Bide propio bat jorratzeke

Carod-Roviraren saioaren ostean, euskal prozesuaz jardun zuten Pako Aristik, Eneko Bidegainek eta Ane Larrinagak.

EHUko irakasle eta soziologoa da Larrinaga. Euskal estatu propioaren inguruan eginiko ikerketa baten emaitzak aurkeztu zituen Sutegin. Ondorio argi bat atera du; euskal estatu independenteaz ari garenean, ez dugu argi zer lurralderi buruz ari garen. Batzuentzat EAE da, besteentzat Hego Euskal Herria, eta gainerakoentzat zazpi herrialdeak. %40a estatu propio independente bat iza-

tearen alde legoke, %35 aurka, eta %25ak ez du argi edo ez du erantzun. Independentzia zaletu gehienak EAEn omen daude. Datuok eskuotan ziotenez, independentista portzentai garrantzitsu bat bada gure artean. “Baina ez da gehiengo, ez dago egonkortua programa argi baten bueltan”.

Pako Aristik datuoz ohartarazi zuen, datuok kontu handiz maneiatu behar direla, “euskal errealitateak ez baititu garatzen iritzi eta joerok askatasunean, dominazio testuinguru batean baizik”. Ez da gauza bera bere ustez, existitu ez eta diseinatzeke dagoen Estatu independente

bat nahi dugun galdetzea, edo askatasun giro batean, errealitate horri uko egin nahi diogun galdetzea. Eneko Bidegain, Mondragon Unibertsitateko komunikazioko irakaslearen ustez, batzen gaituen euskara bezain garrantzitsua da lurraldetasuna. Nabarmetzen zuenez, azken hamarkadotan ordea, estatu eta administrazio ezberdinetan zatikatua dugun Euskal Herria eta herria bera gehiago sakabanatzera eraman dute. Duela hamarkada batzuk eratu ziren erakundeen lehen kanpamendu inprobisatu hartan gaudela oraindik, itxuraz betiko.

Istripua Troian

Ezbeharra gertatu da asteartean goizean, oinezko nahiz lasterkariak Zubieta edo Lasarterako joan etorrietarako baliatzen duten Usurbilgo pasabide arriskutsuetan. N-634 errepelean, Troia parean. Goizeko 07:00etan gizonetako bat hil zen auto batek harrapatuta. Hildakoa, usurbildarra da; Manuel Diaz Argüello. Aurten 80 urte bete dituen gainerako herritarrekin batera omendu zuen Gure Pakea Elkarteak, urriaren 2an.

Langabetuak kontratatzeko dirulaguntzak

Buruntzaldea-Beterri bialarako udalek sustatua, inguruko enpresei zuzendurik dago eskaintza. Enplegurako laguntza ekonomikoak zenbateko hauen araberakoak izango dira:

■ 3.000 euroko gehienezko laguntza, 3 hilabete iraungo duen lanaldi osoko kontratuko.

■ 5.000 euroko gehieneko laguntza, 5 hilabete edo gehiago iraungo duen lanaldi osoko kontratuko.

■ Argibide gehiago:

Josune Mujika (943371951), enplegu@usurbil.eus

Usurbilgo txanpona eskuratzeko aukera

Herrian herriko txanponarekin erosteko, iazko abenduan jarri zuten zirkulazioan Usurbilgo txanpona. Txanpon gehiago behar badituzue, gerturatu ostegun honetan, urriak 13, 18:00-20:00 artean Potoxoenara. Bezero bakoitzak gehienez 5 txanpon eskuratu ahal izango ditu. Egitasmo honetako sustatzaileek gogorarazten dutenez, “Usurbilgo txanponarekin ordainduta, %10 merkeago”, erosi ahalko da Hurbilago Elkarteko saltokietan.

Usurbilgo herrien topagunea

HERRI ANITZA JAIAREN BARRUAN, EKITALDI UGARI ANTOLATU DITUZTE LARUNBATERAKO



Usurbil Herri Anitza jaialdiko antolakuntza taldea.

Herrian dugun aniztasuna plazaratu eta elkarbizitzarako zubiak eraikitzen segitzeko aukera aparta izango da larunbatean, urriak 15, Usurbilgo Udalak eta herritar talde batek antolatu duten Usurbil Herri Anitza jaian. “Animatu eta etorri”, luzatu dute gonbita. Jatorri ezberdinetako herrien eta herritarren topagunea izango da jaialdia.

Besteak beste, iaz bezala gertuko nahiz munduko hainbat txokotako jakiak prestatuko dizkigute, haien sorterriko gastronomia ekarriko digute Usurbilen bizi diren jatorri ezberdinetako herritarrek frontoian egokituko dituzten postuetara. Iaz arrakasta izan zuen ekimena indartu nahian dabil antolakuntza. Jatorri aniztetako herritarrak ariko dira sukaldari lanetan. Prestaketa lanak frontoian egingo dituzte, eta jakiak ere leku berean zerbitzatu dituzte. Munduan zeharreko gastronomian bidaiatzeko aukera beraz larunbatean, herritik mugitu ere egin gabe. Eta bide batez, postuetan egongo diren herritarrekin hitz egin, eta haien berri jaso ahalko dugu. Antolatzaileek horretara animatzen gaituzte, harremantzera, Usurbilen ditugun mundu ezberdinak lehen eskutik, besteren

EGUERDIAN, DASTAKETA

“Larunbatean, jatorri aniztetako herritarrak ariko dira sukaldari lanetan. Prestaketa lanak frontoian egingo dituzte. Munduan zeharreko gastronomian bidaiatzeko aukera izango dugu beraz, larunbatean”

artean, ondoko irudian agertzen diren herritarren ahotik ezagutzera. “Behar, jatorri ezberdinak ditugu. Denok Usurbilen bukatu dugu. Aniztasun hori islatu nahi genuke”, adierazi digute.

Herritarrok modu aktiboan parte hartu dute antolaketa lanetan. Larunbateko ekitaldien prestaketa lanetan soilik ez, egunotan Sutegiko aretoan ikusgai duzuen SOS Arrazakeria taldearen “Errefuxiatuak ongi etorri!” erakusketara joaten bazarate, jatorri ezberdinetako usurbildarrek egingo digute harrera.

Bizilagunak, mahaiaren bueltan

Dantza, musika eta gastronomia uztartuko dituen jaialdiaren hasieran, SOS Arrazakeriaren proiektuetako bat aurkeztuko dute jendaurrean. Azaroaren 13an, igandez,

14:00etan Euskal Herriko hainbat etxeetan ospatuko den “Bizilagunak” egitasmoa. Herri berean bizi diren jatorri ezberdinetako familiak mahai baten bueltan biltzea ahalbidetuko duena. Dinamizatzailerik batek egingo du “zubi-lana”. Herritarren arteko harremanak sendotzea helburu duen ekimen hau, larunbatean aurkeztuko dute frontoian. “Ia animatzen den Usurbilgo jendea”, diote antolatzaileek. Iaz bi familiek parte hartu zuten. Izen emate orriak, SOS Arrazakeriak munduko arroza eskuragarri jarriko duen postuan izango dituzue.

Lanketan sakondu nahian

Ez lukete herri aniztasunaren aldeko lanketa larunbateko jaialdira mugatu nahi, jarripena eman asmo diote urtean zehar ekimen gehiago eginez. Taldera batu nahi lukeenak, larunbatean antolatzaileei jakinarazi ahalko die. Bestela, Gizarte Zerbitzuetara joan behar ez du. Gauza bera, “hurrengo urteko jaialdian postua jarri nahi duena ere animatzen dugu gurekin kontaktuan jartzera”. Herriak Usurbil Herri Anitza ekimenari eginiko harrera eta Udalak eskainitako laguntza eskertu nahi dute.

Aniztasuna, plazara

Urriak 14 ostirala

■ 18:00 “Chertat eta Lehoia” Saharako ipuinaren kontaketa Santueneko ludotekan. Adin guztietako herritarrentzat.

■ Sinopsia: Ipuinaren protagonista Chertat da, oso per-tsonaia ezaguna Saharan. Chertatek lehoiarekin tratua egingo du, bera delako animalia nagusia, eta erraztasuna duelako ehizatzekeo...

Urriak 15 larunbata

■ 12:00 Aurkezpena herriko dantzariek.

■ 12:15 Bizilagunak proiektuaren aurkezpena (SOS Arrazakeria).

■ 13:30 Jatorri ezberdinetako herritarrak prestatutako jakien dastaketa.

■ 16:30 Munduko berbena (Txatxilipurdi elkarte).

■ 18:30 Munduko dantzak (Amaia Gonzalez Caballero).

■ 20:00 Kontzertua: Son Kandela Musikarte elkarte.

■ Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta herritar talde bat.

Erakusketa Sutegin

Urriaren 15era arte

■ “Errefuxiatuak ongi etorri!” erakusketa Sutegiko erakustaretoan: “Erakusketa honek jaso nahi ditu errefuxiatuen errealitateaz dagoen ezagutza eta kontzientziazio maila, eta harreraren aldeko gipuzkoar herritarren jarrera handitu, gazteen artean batik bat eta arreta berezia eskainiz adingabe eta emakume errefuxiatuen egoerari”.

-Astetartean: 18:00-20:00.

-Urriaren 15ean: kalera aterako dute erakusketa.

Usurbil FT-ren 40. urtemugako bazkaria



Tiketak urriaren 19ra arte egongo dira salgai Bentan, Txiribogan eta Bordatxon. Argazkia: 2014ko Usurbil FT eguna.

Lau hamarkada bete ditu Usurbil F.T.-k eta ospatzera doaz. Urriaren 22rako bazkaria antolatu dute Saizarren. Sarrerak jada salgai dituzue urriaren

19ra arte, Benta, Txiriboga eta Bordatxo tabernetan. Helduenak 30 eurotan, gazteenak 15 eurotan. "Animatu zaitezte!", luzatu dute gonbita Usurbil F.T.-tik. Futbol tal-

deen bilguneak irailaren 9an bete zituen 40 urte. Urtemuga ospatzeko hainbat ekimen iragarri ditu futbol taldeen bilguneak, hasi berri dugun ikasturte honetarako.

Futbola Haranen

Urriak 15 larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak:

Udarregi 6A-Urnieta 6A

■ 09:30 Alebin mutilak:

Udarregi 5B-Landaberri B

■ 11:15 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Kostkas K.E. "C"

■ 16:00 Erregionalak:

Usurbil F.T.-Mundarro FKE

Gipuzkoako Pilota Txapelketa

Urriak 14 ostirala,

19:30ean Aginagan

[Eskuz binaka kadeteak 1.maila:](#)

Galarraga-Iruretagoiena/Tolosa 2

[Eskuz binaka nagusiak 2.maila:](#)

Exposito-Aranguren/Lapke

[Pilota gomaz 1.maila:](#)

Errasti-Urdanpilleta/Hernani

Endika Abril

Txapelketa

Urriaren 9an, Zubietak 13-0 irabazi zion Senpereri.

Azaroaren 5ean, mendi buelta baten ondoren bazkaria Arabako Errioxako upategi batean

Azaroaren 5ean, Errioxako bazterretan ibiliko dira Andatza taldeko kideak. Urizaharra-Bastida arteko ibilbidea osatuko dute eta ondoren upategi batean bazkalduko dute: Eskuernagako Candido Besa upategian. Izena alde zurretik eman behar da. Eta adi, plaza kopurua mugatua baita.

■ Noiz: Azaroak 5 larunbata.

■ Irteera nondik: Oiardo kiroldegitik.

■ Ordua: Goizeko 7:00etan.

Garraioa: Autobusez.

■ Ibilbidea: 13,5 km.

■ Izen-ematea: Azaroak 1 baino lehen. Izena ematerakoan 40 euro ordaindu behar dira, garraioa eta otordua barne.



Urizaharra (irudian) eta Bastida arteko ibilbidea osatuko dute lehenbizi, eta ondoren Candido Besa upategian bazkalduko dute.

■ Plaza mugatuak: jatetxeko tokiaren arabera, 30 plaza. Otordua Candido Besa upategian egingo da.

■ Diru ekarpena Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko kontue-

tako batean egin behar da:

Rural Kutxa:30080259 1630 05430321

Kutxabank: 20955069 0710 68489805

■ Oharra: Andatza Mendizaleen Kirol Klubak antolatzen dituen irteeretan parte hartze-

ko derrigorrezkoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin jarri harremanetan andatzah@hotmail.com helbidean.

Mendi Astea, azaro amaieran

2016ko Mendi Astea azaroaren 24, 25 eta 26an ospatuko da, "eta laster izango duzue berri gehiago".

Web gunea, berriro martxan

Azken asteotan izandako arazoak gainditu ondoren, berri ere martxan da www.andatza.com web gunea.

Agenda urria

14 ostirala

- **Ipuin kontaketa Santuenean.** "Chertat eta Lehoia" Saharako ipuinaren kontaketa. 18:00etan Santueneko ludotekan. Nori zuzendua: adin guztiei.
- **Erakusketa: "Errefuxiatuak, ongi etorri!"** Sutegiko erakusketa gelan.

15 larunbata

- **Usurbil Herri Anitza! Jaia.** kus 18. or.
- **Erraustegiaren aurkako mobilizazioa** Donostiako Gipuzkoa Plazan, Foru Aldunditik Banco Santanderrera. 12:00.
- **Erakusketa: "Errefuxiatuak, ongi etorri!"** Sutegin. Azken eguna.

16 igandea

- **Lip-dub grabazioa** 11:00etan Kaxkoan.
- **Organo kontzertua** Olimpio Medori italiarrarekin eskutik. 20:00etan Salbatore parrokiari.

Igandean, organo kontzertua

Olimpio Medori italiar organo jolearen emanaldia arratsaldeko 20:00etan izango da Salbatore Parrokiari. Emanaldia Gipuzkoako Foru Aldundiak, Usurbilgo Udalak eta Usurbilgo Parrokiak antolatu dute elkarlanean.

Sarrera, doan

Ekitaldirako sarrera doakoa izango da. Kontzertua elizan bertan jarriko duten pantaila erraldoi bidez jarraitu ahal izango da.



Olimpio Medori italiarraren emanaldia, igandean 20:00etan Salbatore parrokiari.

Asteartean, Maialen Lujanbioren solasaldia

NOAUA! Kultur Elkarteak antolatutako hitzaldi-solasaldia urriaren 18an izango da, 19:00etan Potxoenean. "Bat-bateko bertsoa eta sormen uneko mugak. Bertsoa, euskara eta sormena izango dira hitzaldiaren zutarrak. Nola lotzen dira hirurak? Zeintzuk dira bertako aukerak/mugak/mekanismoak?". Galdera hauen inguruan arituko da Hernaniko bertsolaria.



Katixa Agirreren nobelaz jardungo dute Sutegin

Liburutegiak antolatu duen solasaldian, gasteitar idazlearen lehen nobela hartuko dute hizpide: *Atertu arte itxaron* (Elkar).

Urriaren 19an asteazkena, 19:00etan Sutegin. Liburuak eskuragarri daude liburutegian, bereziki solasaldian parte hartzeko interesa duen ororentzat, Sutegitik aditzera eman dute-nez.



Datozenak

Buruntzaldeko

Ibilbideen 9. Eguna

Buruntzaldeko Ibilbideen Egunean "Buruntzaldea eskualdea eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu. Bukaeran autobus zerbitzua izango da norbera abiatu den herrira itzultzeko".

- Urriaren 23a igandea.
- Orduetgia: 09:00-14:00.
- Informazio gehiago: buruntzaldea.eus
- Antolatzailea: Buruntzaldeko udalak.

Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa

Urriaren 26an asteazkena, arratsaldeko 18:00etan Sutegi udal liburutegian. HH5-eko ikasleei zuzendutako saioa izango da.

Urriaren 29an larunbata, kantu saioa

"Herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera", horra Kantu Taldearen gonbitea. Ohi bezala, Mikel Laboa plazan elkartuko dira 19:00etan.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patxi Mena jatetxea


· bazkariak EGUNERO
· afariak. asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

libduphartzuhitza@gmail.com



VIB DUP HERRIKOIA!



errautsua
erabakia
123

URRIAK 16 11:00
IGANDEA 16

ANIMATU ETA HARTU HITZA!

Orain da garaia nolako Usurbil nahi dugun erabakitzeko

KALE
IREKIAK
Usurbil

Emakumeon topaketak

19 **Urriak**
Potxoenea
18:30 asteazkena



**Bideo emanaldia +
hausnarketa**

Ikuspegi propioa daukagu **Usurbilen** inguruan,
eta ezinbestekoa da gure parte hartzea!

Gazte, heldu zein adineko zatoz zure bizipenak
kontatzera. Denon artean guztiontzako herri hobeago
bat eraikiko dugu! Geure beharrak ere kontuan hartzen
dituen **Usurbil**, alegia.

26 **Urriak**
Potxoenea
18:30 asteazkena

Ibilaldia herrian zehar

Usurbilek txoko ugari ditu, baina, ez dira denontzako
aproposak. Aztertu ditzagun bada ibilalditxo bat egiten
dugun bitartean, eta ireki ditzagun guretzako itxiak
direnak; positiboz eta negatiboz jantziko dugu herria
hausnarketa egiten dugun bitartean.



Eguneroko bizimodua + Mugikortasuna



22 **Urriak**
Potxoenea
10:00 larunbata

* **Hurtzaindegi zerbitzua egongo da**

Herrian gehien erabiltzen ditugun espazioak identi-
fikatu eta aztertuko ditugu. Aproposak al dira ditugun
beharretarako? Egokiak al dira umeak bakarrik egoteko?
Adinekoak elkartzeko? Gauzez bertatik pasatzeko?

Usurbilen erradiografia honekin herritarrok
dauzkagun traba eta oztopoak identifikatu eta
etorkizunean babestu eta indartu beharrekoak
zeintzuk diren jakingo dugu.